- **6.4 artikulua:** *Zehaztu behar da produktuaren prestaketari eta egokitzapenari dagozkion zuzenketak prestaketa eta egokitzapeneko akatsak soilik zuzentzeko izanen direla paziente edo erabiltzaileari entregatu arte, eta ez da aintzat hartuko bestelako aldaketa edo egokitzapenik, ezta entregaren ondotik egindakorik ere; betiere, produktuaren bermealdia aplikatuko da, akastuna bada: aintzat hartuko da.*

- **6.5 artikulua:** *Komenigarria da produktuaren entrega dokumentu bat ezartzea paziente edo erabiltzailearentzako [...] eta dokumentu horretan entregaren benetako data jasotzea. 12. artikuluan adierazten denarekin lotuta: onartu egiten da.*
- **7.1 artikulua:** *Berariaz adierazi behar da erregistro horretan 6.2. artikuluan definitutako osasun establezimenduek emanen dutela izena (gure proposamenarekin bat eginez). [...]: aintzat hartuko da.*
- **8.2 artikulua:** *Preskripzio bat egitean, informazio hori emanen zaie erabiltzaileei: onartu egiten da.*

➤ **CERMIN:**

- **4. artikulua.** *Preskripzioa. Beste profil profesional batzuk sartzea produktu ortoprotesiko egokiaren preskripzioa egiteko, hots, preskripzioaren erabakia diziplina anitzeko lantalde batek har dezala [...]: ezetsi egiten da.*
- **7. artikulua.** *Nafarroako prestazio ortoprotesikoen kudeaketaren Establezimendu Laguntzaileen Erregistroan izena emateko, honako betekizun hauek bete beharko dira:*
 - *Plantillan langile adituak eta prestakuntza espezializatuko langileak izatea, goi mailako orientazioa eta aholkularitza eskaintzeko.*
 - *Erantzuna pertsonalizatua dela frogatu behar da.*
 - *Laguntza produktu berrerabilgarrien mantentze-lan, kentze eta kontrolean laguntzeko betebeharra txertatu behar da.*
 - *Produktuen bermeari buruzko exijentzia guztiak argi eta garbi adierazi behar dira.*
 - *Produktuaren konponketei dagokienez, erabiltzaileak erabakitzeko aukera izan behar du.*
 - *Merkatu horretako lehia bultzatu behar da, gehiago eta arreta handiagoz errepara diezaieten bezeroaren beharrei.*
 - *Eremu horretan aitortutako prestakuntza eskaintza bat sustatzeko ekintzak bultzatzea (LH edo Unibertsitatea), esparru horretan I+G+B bultzatzeko hitzarmenak...*

Ezetsi egiten da.

- **13.2 artikulua. b) puntua ezabatzea [...]:** ezetsi egiten da.

➤ **COFNA:**

- **4.3 artikulua.** *Preskripzio ereduaren aginduaren eranskin gisa atxikitzea proposatzen dugu, izan behar dituen apartatuak eta jaso behar dituen datuak zein diren argi uzteko: aintzat hartuko da.*
- **4.4 eta 4.5 artikulua.** *Neurrira egindako produktuei (MED) edo 3. mailako egokitzapen indibidualizatua behar duten produktuei (ADAP3) dagokienez, ez dago argi preskriptoreak onarpena emateko jarraitu beharreko prozedura. Urrats hori errazten ahal da, esaterako, erregistro orri baten antzeko dokumentu baten bidez; bertan adieraziko dira preskriptoreak eskatutako moldaketak eta horiei dagozkien berrikuspenak: aintzat hartuko da.*

- **4.6 artikulua.** *Preskribatutako produktuen ezaugarri bereziak aintzat hartuta, preskripzio dokumentuaren balio epea hilabete batetik hirura luzatzea proposatzen dugu, epe hori bukatzen delarik produktua banatzen duen establezimenduak preskripzioa jasotzen duen unean: ezetsi egiten da.*
- **5. artikulua.** *Aurretiazko baimena produktu jakin batzuentzat. Beharrezkoa litzateke eman aurretik baimena/oniritzia behar duten produktuen zerrenda ezartzea, eskaintzaren katalogoan argi eta garbi ikus dadin zein diren: aintzat hartuko da.*
- **6.2 artikulua.** *Iradokitzen dugu berariazko paragrafo bat gehitzea oinarrizko doikuntza behar duten produktu ortoprotesikoentzat (BAS): Oinarrizko doikuntza behar duten produktu ortoprotesikoen banaketa farmazia bulegoetan zein ortopedia establezimenduetan egiten ahalko da, osasun produktuak erregulatzen dituen urriaren 16ko 1591/2009 Errege Dekretuaren 27. eranskinean adierazten denarekin bat eginez: aintzat hartuko da.*
- **7.2 artikulua.** *Establezimenduen erregistroan farmazia bulegoak oinarrizko doikuntza behar duten produktu ortoprotesikoen (BAS) banatzaile gisa izena emanda egon beharko dutela adierazi behar da: aintzat hartuko da.*
- **8.2 artikulua.** *Preskripzioaren unean establezimenduen zerrenda eskura izateak pazienteari preskribatu dioten produktua eskuratzen laguntzen ahal diola uste dugu. Beraz, puntu hori modu honetan berridaztea proposatzen dugu [...] Halaber, informazio hori eskuratzea errazteko, QR kode bat jartzen ahal da preskripzio dokumentuan eta horren bidez ematen ahal da establezimenduen zerrenda eguneratua jasotzen duen webgunerako sarbidea: proposamenaren edukia onetsi egiten da eta kontuan hartuko da artikulua idaztean.*

Kontu horiei dagokienez, adierazi beharra dago administrazio honek, bere jardunbidearen oinarrian dauden printzipioei jarraikiz, besteak beste, **administrazioa sinpletzea eta herritarrak zerbitzatzea**, epeak murriztu eta prestazioa eskuratzeko izapideak erraztuko dituela, prozedura ahalik eta azkarren egiten ahal izateko. Horretarako, teknologia berriak erabiliko dira, eta joera izanen da paperean betetzeko aginduak desagertzea eta informatikoki betetzea, errezeta medikoekin gertatzen den modu berean; hala ere, gutxieneko trantsizio epe bat ezarriko da, egokitzapena progresiboa izan dadin eta ez dadin arazorik egon.

Ildo horri jarraikiz, sanitarioekin eta prozesuan parte hartuko duten profesionalekin hainbat saio egitea bultzatuko da, sartuko diren berrikuntza guztien berri emateko eta egokitzapen prozesua errazteko. *Ad intra* alderdiei dagokienez, agindu zehatzak emanen dira.

Halaber, identifikatzen diren ahultasun eta akatsen, administrazioaren gaitasunaren eta erabiltzaile eta profesionalengandik jasotako iradokizunen arabera, prozesua berriz diseinatzen ahal da, eskaintzen den zerbitzuaren kalitatea hobetzeko.

Zehazki, preskriptorearen oniritziaren izapideari dagokionez, administrazioaren betebeharrerako bat da, eta ezin du egiaztapen funtzio hori alde batera utzi, **baliabide publikoen prestazio egokia eta erabilera efizientea** egin behar duelako. Beraz, ez dago izapide hori ezabatu beharrik. Horrek ez du esan nahi beharrezkoak ez diren formalitateak ezabatu eta dena bizkortu ezin daitekeenik; horretarako, oniritzia telefono bidez emateko aukera izanen da,

egoera sinpleenetan, eta moduak erraztuko dira preskriptoreen eta banatzaileen arteko komunikazio zuzena posible izan dadin. Era berean, establezimendu hornitzaileari ez zaio zigorrik ezarriko, baldin eta epeak erabiltzailearen edo osasun agintaritzaren beraren jardunbidearen ondorioz ez badira betetzen.

Gainera, oniritzia jasotzeak ez du horren ondorengo produktuen kontrola eta jarraipena baldintzatuko, zeina administrazioak egin behar baitu.

Preskripzio dokumentuari dagokionez, eredu sinple bat diseinatuko da, betetzen eta ulertzen erraza, eta prestazioari dagozkion alderdi guztiak azalduko dira bertan (identifikazio datuak, justifikazioa, produktuaren identifikazioa, behar izan duen egokitzapena, berritzea, konponketa, aurretiazko baimen baten beharra...).

Preskripzio hori foru aginduaren zirriborroaren 4.1. artikulua adierazitako medikuek egingen dute, diziplina anitzeko lantalde batek lagunduta, hala behar denean edo dagokion medikuak beharrezkoa dela deritzon. Gainera, preskripzioa erabiltzailearen osasun egoerari eta egoera pertsonalari ahalik eta garrantzi handiena emanda egingen da, eta establezimendu hornitzailea preskriptoreak erabakitakoa hitzez hitz betetzen saiatu beharko da. Ildo beretik, preskripzioaren ondorengo produktuen kontrola eta egiaztapena ere preskripzioan jasotako jarraibideen arabera egingen da; horrez gain, administrazio hau aztertzen ari da batzorde bat osatzea, alegazioa jarri duten zenbaitek eskatu duten bezala, erabakiak hartzeko preskriptorearen eta establezimendu hornitzailearen artean desadostasunak badaude.

Bestalde, administrazio honek preskripzio aginduei ezartzen zaien hilabeteko balio epea zentzuzkoa eta nahikoa dela deritzo; are gehiago, aintzat hartzen bada, oro har, errezeta medikoen balio epea hamar egunekoa izaten dela. Horrez gain, erabiltzaileari berari eskatzen zaio arduraz jokatzeko eta bere aldetik jartzeko; izan ere, betebeharrak horiek prestazio publiko ortoprotesikoa eskuratzeko eskubidearekin zuzenki lotuak baitaude, eta soilik horrela lortzen ahalko baita zerbitzua denontzat hobea izatea, eta prestazioaren kalitatea okertu dezaketen arazorik ez izatea. Ondorioz, ez da aurreikusten preskripzio aginduaren balio epea luzatzerik.

Banaketari dagokionez, **indarrean dagoen araudiak baimendutako establezimendu sanitario guztiak egonen dira gaituta (ortopediak, optikak, entzumen protesien establezimenduak, farmazia bulegoak, etab.), baina establezimendu bakoitzak katalogoko produktu jakin batzuk banatu eta egokitzeko baimena izanen du.** Gainera, erabiltzaileak zuzeneko ordainketa aukeratzen duenean, erakunde laguntzaileen erregistroan izena emanda egon beharko dute establezimenduek. Establezimendu hornitzaile guztiek, baimendu zein laguntzaile, erabiltzaileari produktua entregatzeko orduan ziurtagiria ere eman beharko diote, eta bertan jaso beharko dira data eta alegazio horien guztien iturri izan den foru aginduaren proiektuko 6.4 artikulua jasotzen dituen dokumentu guztiak.

Komeni da argitzea, establezimendu batek baimena izan baina establezimendu laguntzaile gisa izena emanda ez egon arren, edo foru komunitateko lurraldearen barruan ez egon arren, edo egoitza fisikorik ez izan arren, erabiltzaileak bertara joaten ahal direla dagokien prestazioa jasotzera. Hori bai, ezin izanen dute zuzeneko ordainketa aukeratu, **halaberrez aukeratu beharko dute erabiltzaileari gastuak itzultzeko prozedura.** Hala, prestazioa

eskuratzeke modua erabiltzaileak erabakitzen du, eta libreki aukeratzen ahal du bi ereduaren artean, gastuak itzultzekoa edo ordainketa zuzena.

Beraz, bien artean nahi dena aukeratzen ahal denez, eta jasotako alegazioen ildoari jarraikiz, Nafarroako Gobernuaren webgunean argitaratuko da establezimendu laguntzaileen zerrenda, zeina paperean ere eskainiko zaien preskripzioarekin batera eskatzen duten erabiltzaileei. Dena den, preskripzio orrian ere jasoko da dagokion aplikazioa erabiliz zerrenda horretarako sarbidea ematen duen esteka eta/edo kodea.

III. Prestazioaren ordainketa.

Jasotako alegazioak beherago ageri dira transkribaturik, eta honako gai hauei buruzkoak dira:

- a) Prestazioa ordaintzeko jarraitu beharreko prozedura, eta
- b) Erabiltzaileek prezioen arteko alde ordaintzeko aukera, kategoria hobeko produktuak eskatzen dituztenean, baldin eta produktu horien prezioa administrazio sanitarioak ezarritakoa baino handiagoa bada.

➤ ANDOP:

- **10.1.a) artikulua:** *Zuzeneko ordainketa aukeratzen denean nahitaezkoa da establezimendu hornitzailea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko hornitzaile gisa kontuan hartuta egotea, administrazio publikoen kontratazioari buruzko legedia bete eta prestazio ortoprotesikoaren izapidetzea eta fakturazioa elektronikoki egin ahal izateko. Izan ere, ezinezkoa litzateke halakorik egitea hornitzaile moduan kontuan hartuta egon gabe. Metodo aldaketa horrek faktura zerbitzu horren kontura jaulkitzea ahalbidetzen du, ez paziente edo erabiltzailearen kontura, zeinak endosatze sistema eskas bat ezkutatzen baitu, eskainitako prestazioa kobratzea bermatzen ez duena: ezetsi egiten da.*
- *Bestalde, garrantzitsua iruditzen zaigu saldutako produktuaren ordainketa prozesua preskriptorearen oniritzitik edo ortopedia establezimendu hornitzaileari egotzi ezin zaizkion beste gorabehera batzuetatik aparteko prozesua izatea [...]: ezetsi egiten da.*
- **10.2 artikulua:** *[...] baimendu beharra dago, pazienteak hala eskatuta eta preskripzio berezien beharrik gabe, preskribatutakoaren mota bereko baina kalitate hobeko produktua eskuratzea, betiere pazienteak komunikatzen badu fabrikatzaileak egindako eskaintzak ezarritako finantzaketaren gehieneko zenbatekoa eta bere gain hartzen badu finantzaketaren prezio muga eta azken prezioaren arteko alde ordaintzea: ezetsi egiten da.*
- **10.3 artikulua:** *Aurreko alegazioa aintzat hartuta, eskaintzaren parte diren produktuei erreferentzia bat ezarri behar zaie [...]: ezetsi egiten da.*
- **10.4 artikulua:** *Honako apartatu hau gehitzea proposatzen dugu: "Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak baimendutako ortopedia establezimenduek edo aurretiazko funtzionamendu lizentzia dutenek banatutako produktu*

ortoprotesikoak bakarrik finantzatuko ditu, 6.2 artikuluan xedatutakoaren arabera (gure proposamenarekin bat eginez): aintzat hartuko da.

- **12.1.a) artikulua:** Honako testu hau zehatzago idaztea proposatzen dugu: a) Preskripzio dokumentua, foru agindu honen 4. artikuluan eskatzen diren datu guztiak biltzen dituen, eta, behar izanez gero, 5. artikuluan adierazitako Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren aurretiazko baimena duena: aintzat hartuko da.
- **12.1.b) artikulua:** Fakturari buruz ari dela ulertzen dugu, baina gogoratzen dugu entrega dokumentu bat erabiltzen ahal dela, guk 6.5 artikuluari egindako alegazio batean aipatzen den gisan. [...]: aintzat hartuko da.
- **12.2 artikulua:** Idazketa nahasgarria da bukaeran: Gure proposamena [...]: aintzat hartuko da.

➤ **CERMIN:**

- **13. artikulua. 2. puntua. b) puntua ezabatzea, honakoa esaten baitu:** “Medikuaren preskripzioa, adierazten duena Nafarroan ez dagoela produktua eskaintzen duen establezimendurik, oso berezia baita”: aintzat hartuko da.

➤ **COFNA:**

- **10.1.a) artikulua:** Osasunbideak zuzeneko ordainketa egiteko baldintzak definitu beharko lirateke, gutxienez, entitate eta establezimendu hornitzaileei ordaintzeko epeak eta halako neurriak ezarrita: onartu egiten da.
Ulertzen dugu emandako produktuen ordainketa faktura bateratu baten bidez egitea onuragarria izaten ahal dela nola establezimendu hornitzaileen kudeaketarako, hala Osasunbidearentzat. Ildo horri jarraikiz, 1.a) puntuan paragrafo hau gehitzea proposatzen dugu: [...]: aintzat hartuko da.
- **10.2 artikulua:** Gure ustez, pazientearentzat garrantzitsua izan daiteke pazienteari, kategoria jakin bati ezarritako finantzaketaren gehieneko zenbatekoa gainditu arren, eskaintzarekin lotura duten produktuak eskuratzen laguntzea, hala eskatzen badu. Halakoetan, pazienteak ordainduko du ezarritako finantzaketaren gehieneko zenbatekoaren eta produktuaren azken prezioaren arteko aldea. [...]: ezetsi egiten da.
- **11. artikulua:** Produktua ematen duen establezimenduari zuzenean ordaintzea. Hasiera batean, artikuluko horrek 10.a) puntuari ez diola ezer gehitzen dirudi, baina “produktua banatzeko baimena” ematen dio. Uste dugu ohar hori gehitzen ahal zaiola 10.a) artikuluko testuari, eta, hala egiten bada, 11.a ezabatzen ahal dela: aintzat hartuko da.
- **12. artikulua:** Gastuak itzultzeko prozeduraren bidezko ordainketa: b) dokumentuaren eredia foru aginduaren eranskin gisa gehitzea proposatzen dugu: aintzat hartuko da.

Alegazio horiei honako erantzun hau ematen zaie:

a) Ordainketa prozedurari dagokionez, administrazio honek badaki nahasgarria izaten ahal dela; beraz, aurkeztutako alegazioak aintzat hartu, eta prozedura berrikusi egiten da.

Dena den, adierazi beharra dago produktuak preskriptorearen oniritzia beharko balu, hala ezarrita dagoelako, ordainketa baino lehen eman beharko dela. Hala ere, bermeak ezarriko dira establezimendu laguntzaileek kalterik ez izateko botere publikoen edo erabiltzaileen jarduketaren erruz justifikatu gabeko atzerapenengatik.

b) Bigarren alegazioari dagokionez, aukera hori ezartzea alde batera uzten da, Osasunbideak zuzeneko ordainketa egitearen xedearen aurkakoa izanen litzatekeelako, zeinak ez baitu eskatzen erabiltzaileak produktuen prezioa aurrez ordaintzerik. Hala, bere helburua da gizarteratzea eta gizarte kohesioa indartzea, eta aurrera egitea prestazioa eskuratzeko berdintasunean, zeina batzuetan ahalmen ekonomikoak mugatzen baitu, baliabide ekonomiko urriko pertsonak direlako edo prezio handiko produktuak direlako.

Gainera, aipatu beharra dago foru administrazio honek prestazio ortoprotesikoekin lortu nahi duen helburuetako bat dela finantzaketaren zenbatekoaren muga pixkanaka eguneratzea. Izan ere, muga hori Osasun Ministerioak ezarri zuen, merkatuko errealitatea ikusirik, katalogoan ageri diren produktu guztiak osorik finantzatu ahal izateko. Modu horretan saihestu nahi da erabiltzaileek diru kopuru gehigarriak ordaindu behar izatea.

IV. Berritzea, konpontzea eta berrerabiltzea.

Alegazio hauek jaso dira:

➤ **ANDOP:**

- **15. artikulua:** *Proposatzen dugu aurrekontu zehatzik egin beharrik ez izatea zenbateko zehatz batetik beherako konponketak egiteko (esaterako, 250 €):* aintzat hartuko da.
- **16. artikulua:** *[...] Horregatik guztiagatik, uste dugu ezinezkoa dela produktu ortoprotesikoak berrerabiltzea:* ezetsi egiten da.

➤ **CERMIN:**

- **14. eta 15. artikulua:** *beharrizan errealaren kudeaketa egokitu egin beharko lukete. [...]:* aintzat hartuko da.
- **Beste ekarpen batzuk:** *Interesgarria izaten ahal da produktu ortoprotesikoen mailegu banku bat izatea. [...] CERMINEn uste dugu ahalegin bat egin behar dela produktu ortoprotesikoen berrerabilpenari dagokionez [...]:* aintzat hartuko da. *Nafarroako Gobernuak jarraipena eta mantentze-lanak eskaintzeak (laguntzaren barruan mantentze-lanen zerbitzu teknikoa) [...]:* ezetsi egiten da.

➤ **COFNA:**

- **14.4 artikulua:** *Ortopedia gaietako zerbitzu eskuduna izan beharko litzateke, produktu berria erosi ordez, konponketa baloratu eta baimentzen duena:* onartu egiten da.

- *1. eranskina / 5. taldea: Uste dugu interesgarria izaten ahal dela zehaztasun handiagoz definitzea konponketaren eta egokitzenaren arteko aldea, produktuak preskribatzea eta ematea errazteko: aintzat hartuko da.*

Ekarpen horiei dagokienez, honako zehaztapen hauek egiten dira:

- a) Produktuak berritzea: proposatzen da zerbitzu eskudunaren arduraren izatea, eta hark erabakitzea, erabiltzailearen behar erreala zein den baloratu ondoren.

Horri buruz, bi kontu. Bat, produktua berritzeko erabakia mediku preskriptorearen esku geldituko da, eta, hark argi ez duen kasuetan, beste profesional batzuen laguntza eskatzen ahalko du. Eta bi, erabaki hori zenbait irizpideren arabera hartuko da; esaterako, produktu bakoitzaren batez besteko bixtza, hots, erabilera normala eginez gero zenbat irauten duen kalitaterik galdu gabe, pazientearen osasun bilakaera eta egoera, konponketaren kostua, etab. Helburua izanen da erabakirik egokiena hartzea, erabiltzailearen errealitatea eta beharrak zein diren aintzat hartuta.

- b) Konponketak: proposatzen da 250 €-tik beherako kostua duten konponketak egiteko aurrekontu zehatzik aurkeztu beharrik ez izatea eskariarekin batera.

Proposamena baloratu egingen da, gutxieneko zenbateko hori ezartzeko; ezartzen den zenbateko horretatik gorako konponketa eskabideek aurrekontu zehatza aurkeztu beharko dute.

- c) Produktuak berrerabiltzea: CERMINek proposatzen du produktu ortoprotesikoaren mailegu banku bat sortzea, berrerabilpena sustatzeko asmoz, ANDOPek, aldiz, zalantzan jartzen du produktuak berrerabili ahal izatea.

Berrerabilpena da baztertu den produktu bati beste erabilera bat ematea, hasierako funtzioa jada betetzen ez duelako –baina beste batzuk betetzen ahal ditu–, edo erabiltzailearen egoera aldatu delako. Horregatik, administrazio honek deritzo produktu ortoprotesikoak berrerabiltzea onuragarria dela, gizarte elkartasunari eta kontsumo arduratsuagoari esker, osasun sistemaren kudeaketa efizienteagoa egitea eta kalitatezko prestazioak guztiz dohainik jasotzeko aukera jende gehiagok izatea ahalbidetzen duelako. Hala, zenbait ortopedia produkturi eraginen lieke, esaterako, eskorga, bipedestadore, haurrentzako makila, makulu axilar, eskorga metaliko, gurpil aulkiak (eskuzkoak zein elektrikoak), etab. Denak ere beste erabiltzaile batzuek emanak, jada ez dituztelako behar edo ez zaizkielako balio, eta berriz balioa hartu dutenak, hala behar izan den kasuetan, saneatu eta konpondu ondotik, eta erabilpen baldintza onean daudenak beharra duenak erabili ahal izateko.

Gainera, ezin da zalantzan jarri ingurumenari dakarkion onura: ez da ondasun berririk ekoinzi behar, non natur baliabideak eta energia erabiltzen baita, eta hondakinak sortu.

V. Audifonoak eta entzumen protesiak.

Iradokizun hauek egin dira:

➤ ANATA:

▪ 1. Entzumen galera duten gazteen aukerak gutxitzea:

- [...] *uste dugu erregelamendu horrek, oinarrizko gamako produktuetara mugatuta, aukera kentzen diela adin horietako pazienteei kalitate handiko audifonoak eskuratzeko [...]: ezetsi egiten da.*

Administrazio hau ez dator bat interpretazio horrekin. Izan ere, foru arauak ez du mugarik ezartzen, baizik eta bermatu beharreko gutxieneko neurriak ezartzen ditu, eta Nafarroako Gobernuaren Osasun Departamenduaren konpromisoetako bat da pazienteek, duten adinaren eta patologiaren arabera, ahalik eta kalitate hobereko entzumen protesiak eskuratu ahal izatea.

- [...] *audifonoentzako dirulaguntzen 0 eta 26 urte arteko onuradunak definitzean, ez dituzte aintzat hartzen aldebakarreko hipoakusia dutenentzat egin beharreko egokitzapenak. [...]: ezetsi egiten da.*

Baieztapen hori ere ez da zuzena. Historikoki, Nafarroako Foru Komunitateak bereziki garrantzi handia eman izan die hipoakusia duten haurrei; are gehiago, gaur egun aldebakarreko hipoakusia dutenentzat entzumen protesiak finantzatzen dituen komunitate bakarra da, eta prestazio hori orain arte bezala mantentzeko konpromisoa du.

▪ 2. Entzumen protesien ezagutza teknikoaren falta:

- *Uste dugu, proposatutako baremoa, audifonoen kalitatea aztertzeako orduan, ez dela kanal kopurura mugatzen, testu originalean hori adierazten dela baitirudi, eta horrek gutako profesionalen artean inork eginen ez lukeen banaketa bat egiten du [...]: aintzat hartuko da.*

Argitu beharra dago foru agindu hau sortzeko Nafarroako Ospitaleguneko (aurrerantzean, NO) Otorrinolaringologia Departamenduarekin (aurrerantzean, ORL) hitz egin zela, zeinak ordezkaritza zuzena baitu Haur Gortasunaren Detekzio Goiztiarreko Batzordean (CODEPEH), eta audiologiako zenbait aditurekin bilerak egin zirela, zeinek entzumen patologia hori eta bere tratamendua oso ongi ezagutzen baitzituzten. Gainera, Hezkuntza Departamentuak gai horri buruz egindako kontsiderazioak aintzat hartu ziren.

Hala ere, baliteke *kanal, banda* eta halako kontzeptu teknikoak erabiltzea egokia ez izana, ministerio agindua entzumen protesiei buruz mintzo baita, oro har. Entzumen protesien gama zabala zela-eta hasi ziren bi terminoak erabiltzen, zenbait modelo edo marka komertzial ez zitezen kanpo gelditu. Haatik, elkarte horrek adierazitako zalantzak ikusirik, erabaki da adierazitako terminologia erabili ordez edo beste baremo batzuk sartu ordez, ministerioak darabilen eredia erabiltzea eta entzumen protesiei buruz generikoki hitz egitea, eta, beraz, "pazientearen adinerako eta patologiarako kalitate hoberekoak" esatea.

- [...] haurrentzat eta adin pediatrikoan daudenentzat egokitu beharreko audifonoei dagokienez, ez da adierazten adaptazio formularen arabera programatu behar direnik (DSL i/o). [...] Populazio profil horretako pazienteentzat diren audifonoek bete beharreko beste betekizun bat konektagarritasuna da, eta ez soilik FM sistemetarako konektagarritasuna, zirriborroan adierazten den bezala. [...]: partzialki onartzen da.
Egokitze formulei dagokienez, egokitzapenak CODEPEHk argitaratzen dituen gomendioen arabera egiteko eranstea erabaki da.
Konektagarritasun sistemari dagokionez, FM sistema aukeratu zen, Nafarroako Hezkuntza Departamentuak erabiltzen duen sistema delako. Baina sistema hori bete beharreko gutxienekoa da, zeina lotua baitago pazienteek ikasgelan duten garapenarentzat egindako hipoakusia programari, eta, horrek ez du saihesten audifonoek beste konektagarritasun sistema batzuk izatea.
- [...] *Gure ikuspuntu profesionaletik begiratuta, egokitu beharreko audifonoaren funtzioaren arabera egiten den bereizketak ez dauka zentzurik [...]: ezetsi egiten da, ministerio aginduak ezarritako terminologia delako, zeina adituekin adostua baita, eta ez baitu aldaketarik onartzen.*
- *Audifonoen irabazia pixkanaka handitzeari buruz testuan egindako aipamenak ez du azaltzen egokitzapen pediatrikoen kasuan albait lehen eskatzen duenaren % 100 irabaztearen beharra [...]. Apartatu berean hitz egiten du egokitzapena burutu eta entzumen atalaseak hizketa maiztasunetan batez beste 20 dB +/- -10dB izateari buruz ORL zerbitzuarekin hitz egin beharreko kasu berezietan izan ezik). Entzumen protesien aditu gisa, egokiagoa deritzogu audifonoen funtzionamendu elektroakustikoaren analisi baten bidez egokitzapena onartzeari [...]: aintzat hartuko da. Audifonoen irabazia handitzeari dagokionez, CODEPEHren gomendioak hartuko dira aintzat.*
- **3. Intrusismoa eta audiologoak egindako lanaren devaluazioa:**
 - *“Audifonoen mantentze funtzioari” dagokionez, foru aginduaren proiektuak audifonoen mantentze zerbitzuek zero kostu izanen dutela zehazten du, eta elkarte honetan zentro bakoitzak tarifa batzuk ezartzeko duen askatasunarekiko intrusismoa dela deritzogu, ez hainbeste entzumen protesien prezioari dagokionez (zeintzuen gomendatutako PSNa fabrikatzaileak ezartzen baitu), baina bai zentro bakoitzak ongi deritzon eran eskaintzen ahal dituen zerbitzu gehigarriei dagokienez. [...]: ezetsi egiten da.*
Kontu horrekin lotuta, argitu beharra dago entzumen protesi bat erosten denean, produktu horren salmenta, egokitzapena eta ohiko mantentze lanak finantzatzen direla. Hala eta guztiz ere, entzumen protesia behar bezala banatzeko eta mantentzeko orduan desadostasunak sortuko balira, badago aukera Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak bere plantillan audioprotesista bat izan dezan, kokleako inplanteekin egiten den gisan, sortzen ahal diren sinergiak aintzat hartuta.
Haatik, “dena barne” esapidea testutik ezabatzeko aukera baloratuko da, erreduntantea baita.
- **4. Audifono eta molde akustikoen iraupena:**

- *Ez dugu ulertzen modeloen artean desberdintasunak ezartzea batez besteko bizitzari dagokionez:* ezetsi egiten da.
Alderdi hori foru aginduaren proiektu hau eragin duen ministerio aginduak ezarria da. Dena den, ez da “batez besteko bizitza” nahastu behar berritzeko epearekin; izan ere, ohiko baldintzetan irauten duen batez besteko denbora da batez besteko bizitza, eta produktuen kalitatea bermatzeko helburua du.
- *Fabrikatzaile guztiek eskaintzen dute gutxieneko bermea (bi urte) bost urtera arte luzatzeko aukera, baita lapurreta eta galeragatiko aseguruia gehitzeko aukera ere; pazienteak ordaindu beharrekoak dira, noski [...]:* ezetsi egiten da, bi urteko bermea nahikoa dela uste delako. Hala ere, erabiltzaileak epe hori luzatu ahal izatea baloratuko da, hainbat estaldura izateko aukera edukitzeko.
- Entzumen moldea aldatzeari dagokionez, proposatutako arautegiak ez du bat egiten audiologia pediatrikoko adituen gomendioekin. Izan ere, adituek proposatutako egutegia moldatzeari eta honako epe hauen arabera bat ezartzeari beharrezkoa deritze:
 - 0 eta 6 urte artean, sei hilabete behin.
 - 0 eta 16 urte artean, 12 hilabete behin.
 Aintzat hartu eta honakoa argitzen da. Moldeak aldatzeko beharra ezartzea mediku preskriptorearen betebeharra da, eta NOaren ORL departamenduak ez du derrigorrezko betebehara gisa aitortzen, salbuespen gisa baizik.
- **5. Gure funtzioaren determinazio argia:** *Martxoaren 22ko 44E/2021 Foru Aginduaren II. eranskinaren 4. puntuari dagokionez. Elkarrearen aldetik argitu nahiko genuke pazientearentzat egokiena den audifonoaren formatua eta gama audioprotesistak erabaki behar duela, horretarako jaso baitu prestakuntza. [...]:* ezetsi egiten da. Nahiz eta audiologia protesikoko goi mailako teknikari lanbidearen funtzioak ezagunak izan, preskripzioa ORL espezialitateko barrutiko mediku espezialistak bete beharreko funtzioa da eta, behar badu, aholkularitza eskatzen ahal du.
- **6. Adin tarte bakoitzean izaten den entzumen galeraren ezaugarrien ezagutza falta.**
 - *[...] 0 eta 3 urte arteko pazienteak eta 20 eta 25 urte artekoak talde berean ezin direla sartu uste dugu; batez ere, 7 urtetik aurrera (gure gremioan) ez delako beharrezkotzat jotzen berariazko gelen beharrik haurrentzat egokitzapenak egiteko. [...]:* ezetsi egiten da.
Osasun Sistema Nazionaleko zerbitzu komunak zorrotza eta hori eguneratzeko prozedura zehazten dituen irailaren 15eko 1030/2006 Dekretuaren VI. eranskinaren 7. puntuak dioenarekin bat eginez, “*administrazio sanitario eskudunek audifonoen eta egokitze moldeen finantzaketa detekzio goiztiarreko programekin lotuko dute*”. Eta, beraz, ezinbesteko betekizuna da establezimendu laguntzaileek halako egokitzapen gelak izatea, nahiz eta 7 urtetik aurrerakoentzat ez izan beharrezkoak.
 - *Foru arauaren proposamenak ez ditu IEC araudiaren arabera babes eta segurtasun betekizunak aipatzen [...]:* ezetsi egiten da, ez delako uste alderdi hori gehiago zehaztu behar denik foru arauan. Babes eta segurtasuneko

betekizunek pazientearen adina aintzat hartu eta indarrean dauden legedi nazional eta nazioartekoek ezarritakoa errespetatu beharko dutela ulertzen da. Dena den, establezimenduak erabiltzaile ororen segurtasuna bermatu beharko du.

- **7. Gardentasuna eta pazientearentzat eta bere familiarentzat askatasun handiagoa:** *Uste dugu egokiena dela Nafarroako Gobernuak pazienteari diru kantitate bat eman ("entzumen txeke" izena jartzen ahal zaio) eta pazienteak edo bere familiak libreki erabakitzea zein zentrotara joan nahi duen –Osasun Departamenduak itundutako edo baimendutakoen artetik. Aukeratutako zentrora joaten direnean, bere entzumen galerarentzat egokiena den audifonoa ematen ahalko zaio: 1.200 € edo 1.500 € horiek balio dituztenetakoa edo bestelako bat; ordaindu beharreko zenbatekoa handiagoa denean berak erabakitzen ahalko du aldea bere poltsikotik ordainduko duen, finantzazio bat egin nahi duen edo entzumen zentroarekin dena delako akordio komertzial bat egin nahi duen. [...]: ezetsi egiten da.*

Foru administrazioak atzerapausoa dela deritzo entzumen txekeak emateari, aurretiaz izandako antzeko esperientzietan ikusi baita txeke horiek iruzur egiteko erabili izan direla, eta, gainera, ziur dago establezimendu hornitzaileari zuzeneko ordainketa egitean prestazioa bermatuta dagoela. Hala, diru hori entzumen protesia lortzeko erabiliko delako, hain zuzen ere, batez ere adin txikikoen kasuan. Hala nola, komunitate mugakideei galdegin ondotik, Errioxa horien artean, "txeke" hori erabili izana gezurtatu egin da.

- **8. Kokleako inplante errealitatea:** *Kokleako inplantei, erdiko belarriko inplantei, osteointegratuei, hezur bidezko eroapen inplantei eta horien osagarri dagokienez, uste dugu itunpeko zentroei askatasuna eman behar zaiela produktu horiek guztiak emateko edo ez emateko: ezetsi egiten da.*

Honako foru agindu hau ez da kokleako inplanteak erregulatzekoa. Dakizuenez, gaingiroki, inplante horiek bi atal dituzte:

- Kanpoaldea, audio prozesatzaile batek eta haril batek osatzen dute, eta belarri atzean kokatzen da, eta
- Barrualdea, belarri atzeko azalaren azpian dagoen hargailu bat, zeinak elektroi gida bat baitu barneko belarrian (koklean) kokatua.

Hala, horien barneko osagaia osasun zentroetan eskuratzen da, eta osagai horien hornitzaileek adierazten dute non eskuratu behar den bateragarria den kanpoko osagaia. Beraz, ez da baztertzeko Nafarroako Osasun Zerbitzuak berak hornitzaileei zuzenean erosteko aukera.

- **9. Arauaren idazketan laguntzea:** *Ez dakigu zein kolektibo, profesionalen elkargo edo sektore pribatuko enpresarekin hitz egin duen legegileak arau hori idazteko erreferentziak jasotzeko orduan. [...] Baina gure helburua laguntzea da eta, besterik ezean, 0 eta 26 urte arteko pazienteari laguntzea sustatzea, guri dagokigun horretan. Horregatik dei eskatzen diegu departamenduko arduradunei balora dezaten aipatutako foru aginduaren II. Eranskina berriro idaztea, baina araudi horrek eragiten dien elkarte profesionaletako ordezkariekin elkartu ondotik. aintzat hartuko da.*

Lehenik eta behin, administrazio honek berriz ere esker ona erakutsi nahi dio ANATAri, egin dituen ekarpenengatik.

Halaber, jakinarazten du erreferentziazko ministerio agindua eta honako proiektu hau garatzeko, audiologiaren adar guztietako adituekin hitz egin dela, nola sektore publikokoekin, hala pribatukoekin, tartean, entzute handiko erakundeekin ere bai, esaterako, Espainiako Audiologia Elkartearekin. Aipamen berezia merezi du NOaren ORL zerbitzuak administrazio honi eskaini dion konpromisoak eta aholkularitzak; izan ere, CODEPEHren gomendioak ezagutzen zituen, eta eskualdeko eta nazioko adituei ere galdekin die, audioprotesistak barne.

- **ERANSKINA. Gure argudiaketaren justifikazio ekonomikoa eta ERANSKINAREN amaiera:** [...] Ondorioz, dirulaguntzan proposatutako prezioak merkatu errealetik guztiz kanpo daudela deritzogu. Prezio horietara heltzerik ez balitz, audioprotesisten zerbitzuagatik kobratzen ahal dela deritzogu. [...]: Ezetsi egiten da. Horri dagokionez, SCB/45/2019 Aginduaren 3. artikulua honakoa xedatzen du:

1. Katalogo komunean adierazten da Finantzaketaren Gehieneko Zenbatekoa (aurrerantzean, FGZ), zeina kanpoko produktu ortoprotesiko mota bakoitzarentzat Osasun Sistema Nazionalak finantzatuko duen gehieneko diru kantitatea baita, azaroaren 2ko1506/2013 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera, zeinaren bidez erregulatu baitira Osasun Sistema Nazionalaren prestazio ortoprotesikoaren zorro komun gehigarria eta prestazio ortoprotesikoen finantzaketaren gehieneko zenbatekoak ezartzeko oinarriak.

2. [...]

3. FGZen eguneratzea azaroaren 2ko1506/2012 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera egingen da. Produktu mota jakin baten FGZ aldatzeko arrazoi nahikoa dagoela deritzoten enpresek eskaria egiten ahalko dute, argudioak emanaz, Osasun eta Farmaziako Sistema Nazionalaren Oinarrizko Zerbitzu Zorroaren Zuzendaritza Nagusiaren aurrean, zeinak eskaria prestazio ortoprotesikoentzeko batzorde aholkulariari helaraziko baitio, hark balora dezan.

Beraz, batzorde horrek merkatuz kanpokotzat eta desegokitzat jotzen badu, enpresa interesdunek FGZ aldatzea eskatzen ahalko dute.

➤ **CERMIN:**

- **2. artikulua:** "e" puntua gehitu. *Komunikazio sistema alternatiboak eta/edo handigarriak (KSAH). Arlo horri buruz nazioko legedian jasotzen den gisan, artikulua bakarra, 2. apartatua:* aintzat hartuko da.
- **3. artikulua. 2. puntua:** *2.a puntua ezabatzea, "26 urte baino gutxiagoko pazienteen izatea" dioena:* ezetsi egiten da. Nahiz eta prestazioa behar duten guztiei eskaini

nahi izan, adina aintzat hartu gabe, zoritxarrez, administrazioaren baliabide ekonomikoak mugatuak dira, eta horrek lehentasunak ezarri beharra dakarkio. Hala ere, ahalegina eginen da hartzekodunen kolektiboa gero eta handiagoa izan dadin.

▪ **Beste ekarpen batzuk:**

- *220600 azpitaldea, audifonoak Pilak ez dira aipatzen. [...]:* aintzat hartuko da.
- *220699 azpitaldea, entzumen inplanteen kanpoko osagaien ordezeko piezak:*
 - *Honakoa jasotzea nahi da: “enpresek, hiru urtean **behin** (eta ez hiru urterako) emanen dituzte pilak” [...]:* ezetsi egiten da.
 - *Haurrentzako diren eta helduentzako diren osagaien batez besteko bizitzak bereiztea proposatzen da [...]:* ezetsi egiten da. SCB/45/2019 Aginduaren sarreran jasotzen denez, produktu baten “batez besteko bizitza” da erabilera baldintza ohikoetan irauten duen batez besteko denbora, eta helburua da produktuen kalitatea bermatzea. Ez da berritzeko epearekin nahastu behar, zeina prestazio ortoprotesikoaren arduradunek ezarriko baitute eremu bakoitzeko produktu guztientzako, berritzerik behar ez duten aldi baterako produktuentzako izan ezik. Epe hori murrizten ahalko da behar bezala justifikatzen den aldietan, foru aginduaren proiektuaren 14.3. artikulua araberara.

VI. Bestelako gaiak

Azkenik, honako proposamen hauek jaso dira:

➤ **ANDOP:**

- **9.3 artikulua:** *Prestazio ortoprotesikorako batzorde bat sortzea proposatzen dugu [...]:* ezetsi egiten da.

➤ **CERMIN:**

▪ **Beste ekarpen batzuk:**

- *Produktu ortoprotesikoen eskaintza eskubide subjektibo gisa bermatuta egotea:* ezetsi egiten da. Proiektu honek erregulatzen duen prestazioa **osasunaren babeserako eskubide** zabalean oinarritzen da, zeina konstituzionalki bermatzen baitu gure funtsezko arauaren 43.1. artikulua. Dena den, I. izenburuaren III. kapituluaren dagoenez, “Politika sozial eta ekonomikoaren printzipio gidarien” artean, ez du funtsezko eskubideek jasoko duten babes bera jasoko, eta ez da zuzenean aplikatuko, eta botere publikoak ere ez dira funtsezko edukiarekin lotuta egonen. Beraz, lege konfigurazioko eskubide baten aurrean gaude, eta botere publikoen jarduketari buruz informazioa emateaz gain, hainbat eratako lege garapenak egitea ahalbidetuko du, eremu horretan bata

bestearekiko desberdinak diren politikak egin baitaitezke. Eta beraz, agindu beraren 2. apartatuan ezartzen du *botere publikoek dutela osasun publikoa antolatu eta zaintzeko eskumena, prebentzioko neurriez eta beharrezkoak diren zerbitzuez eta prestazioez baliatuz.*

- *Produktu ortoprotesikoen eskaintza bideratuta egon dadila desgaitasunen bat duen pertsona ororen parte hartzea eta autonomia pertsonala bermatzera:* prestazio ortoprotesikoaren helburua da pertsonak babestu eta osasuna berreskura dezaten laguntzera, eta horrek lotura du, halaber, beraiek autonomia pertsonalarekin eta gizartean parte hartzearekin.
- *Nafarroako Gobernuak jarraipena eta mantentze-lanak eskaintzeak (laguntzaren barruan mantentze-lanen zerbitzu teknikoa) [...]:* ezetsi egiten da.
- *Ekarpen orokorrak: Erabiltzaileen ekarpenak:* ezetsi egiten da. Foru agindu honen xedetik at dauden kontuei buruzkoa da.

Iruñean, 2021eko uztailaren 30ean.

Luis Otermin Fagoaga.

Prestazioen eta Itunen Kudeaketarako Zerbitzuko burua